

# LINTXen etorrerarekin hasiko dira ofizialki legazpiko inauteriak

Inauteri iganderako Sustraiak Dantza Taldeak berreskuratu-asmatu zuen **LINTX** pertsonaiaren etorrerarekin ematen zaie Legazpiko Inauteriei hasiera ofiziala, Ikastetxeen desfilearen amaieran, **Lintx katamotza**, **Katamalo**z lagundurik azaltzen zaigu udaletxeko balkoian eta bertan bildutakoen lana izaten da **zarata ateraz (txilibitu, karraka, txindata, txistu,...)** eta kantuz Lintx eta **katamaloak uxatzea**.

Inauteri igandean berriz ere azaltzen zaigu Lintx bere lagun katamaloekin eta ohi bezala panpinaren erretzearekin ematen zaie amaiera inauteriei.

Hona hemen Lintx pertsonaia berreskuratu - asmatzera eraman zituzten arrazoiak, azken batean Legazpiko Inauterietarako pertsonai bat sortzeko gogoaren ondorio.

## LYNX (grekera)

Izen honekin izendatua agertzen da Legazpiko udal dokumentu zahar batzutan katamotza. Katamotzak, otsoa eta beste animalia harrapakari batzuk bezalaxe, inguruko baserritar eta artzainei buruhauste ugari ekartzen zizkien: artalde eta etxe-abereetan kalteak egiten zituzten eta beldurra eragin ere bai. Gisa honetako animalien ehiza baimendua zegoen eta ehizaldiak antolatzen ziren.

Euskal inauteriaren tradizioan, eta Goierri alde honetan bereziki, ohikoak ziren “limosna-eskeak”: gazteek auzoz auzo eta baserriz baserri ibiltzen ziren janari eta limosna eskean, Otsabilko deitzen zitzaion ohitura berrituz. Otsabilko, otsoarentzako eskatzea alegia, jai edo ohitura honen inguruko azalpenetako bat baino ez da, baina gure berraitona-amonek hori zuten gogoan gorde diren abestiek adierazten duten legez:

Otsabilko, otsabilko

Ni basoa jun da otso aundi'at ekarriko, ekarriko

Nei lukainka muturr bat emate'ez dinai

Tripaki aurrera burruntzie sartuko, sartuko

(J:M. Barandiaranek Ataunen jaso)

Legazpin, XX. Mendearen hasieran, Brinkola eta Telleriarteko gazteak baserriz baserri ibili ohi ziren inauterietan. Mozorrotuta joaten ziren, aurpegiak belztuta, eta musikariz lagunduta (soinua, trikitixa, panderoa,...): Katamaloak deitzen zitzaien. Hemen dugu katamotzarekiko lotura, izenean bertan.

Hemendik abiatuz proposatu zen bere garaian pertsonai hau, LINTX, gure inauterietan txertatzea.

### **Lintxen etorrera eta koplak**

Arratsaldeko 17:00etan haur, irakasle, guraso, herritar,... guztiak plazan daudenean (Udaletxearen aurrealdean), Lintx katamotza eta katamaloak azaltzen dira Udaletxeko balkoian. Txarangaren laguntzaz lehen koplak kantatzen dugu (bi aldiz jarraian). Kantuak irauten duen bitartean Katamaloak Lintxekin balkoian aritzen dira dantzan. Kanta amaitzean zarata ateratzen dugu (txilibituak, karrakak, oihu egin,...txarangak ere lagunduta). eta izututa Lintx eta katamaloak alde egiten dute.

Berriz azaltzen dira Katamaloak eta Lintx, oraingoan jai eremuan eta jende artean ibili ondoren Txaranga dagoen tokira hurbiltzen dira guztiak. Txarangarekin kantuan hasten gara eta Kantua amaitzean etxafleroa botatzen da eta zarata ateratzen hasten gara, Litx eta katamaloak izutzeko.

Alde egiten dutenean gure poza adierazteko bigarren koplak kantatzen dugu era horretan Legazpiko Inauteriei hasiera ofiziala ematen zaio.

**KOPLAK: Doinua:Axuri beltza**

**Ostiralean**

**1) Lintx beldurtzeko deia,.**

Lintx gaizto eta sarraski-zale

katamaloekin dator

uju ta aja, ulu ta txistu

tira karrakari gogor (bis)

Litx eta katamaloak berriz azaltzean, Txarangaren ingurura gerturatzean di

Lintx gaizto eta sarraski-zale

katamaloekin dator

uju ta aja, ulu ta txistu

tira karrakari gogor (bis)

(ABESTU ONDOREN TXAFLEROA BOTAKO DUGU)

ZARATA ATERA ETA DANTZA EGIN

**2) Lintxek alde egin du. Ospatzeko koplak:**

Gure zaratei esker joan da

dantza eta sua lagun

uju ta aja, ulu ta txistu

festan ospatu dezagun (bis)

**LINTXen Agurra: igandea, 19:00etan plazan.**

Inauteri Konpartsa Herrikoia plazara iristen denean berriz ere azaldtzen zaizkigu Lintx eta katamaloak eta ostiraleko eskema bera jarraituko dugu, baina oraingoan ez dira balkoian agertuko, zuzenean jai eremuan baizik, eta etxafleroaren orde z panpina erretzen dugu.

## **IGANDEKO KOPLAK**

### **1) Lintx beldurtzeko deia, bi aldiz.**

Lintx gaizto eta sarraski-zale

katamaloekin dator

uju ta aja, ulu ta txistu

tira karrakari gogor

### **2) Lintxek alde egin du. Ospatzeko koplak:**

Erraldoiari esker joan da

dantza eta sua lagun

uju ta aja, ulu ta txistu

festan ospatu dezagun